

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
97/2011	R8/2016	2016-05-04	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala</i>

R8/2016 Ebazpena

97/2011 Espedientea

Vitoria-Gasteiz, 2016ko maiatzaren 4a,

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero jauna batzordeburua dela eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese batzordekideak direla, honako hau

ADOSTU DU

Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) Zerga Administrazioko Estatu Agentziari (ZAEA)

1. ERAKUNDEA erakundearen (IFZ: -----) egoitza fiskala zehazteko planteatutako eskumen-gatazkari buruz, gai hori 97/2011 espediente-zenbakiarekin Arbitraje Batzorde honen aurrean izapidetzen baita, Javier Muguruza Arrese jauna hizlaria delarik.

I.- AURREKARIAK

1.- Gatazka hori BFAk planteatu zuen, idazkari orokor teknikoak 2011ko urriaren 13an egin zuen idatzi baten bidez. Idatzia egun berean sartu zen Arbitraje Batzorde honetan.

Idatzi horretatik eta espedientean jasotzen den dokumentaziotik jarraian laburtzen diren honako gertakari hauek atera dira:

- 1) 1. ERAKUNDEA erakundea Bilbon, 1. NOTARIO notario jaunaren aurrean, 2008ko maiatzaren 9an, NNN protokolo-zenbakiarekin eginiko eskritura bitartez eratu zen. Erakundearen egoitza soziala Bilbon ezarri zen, 1. EGOITZAN.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
97/2011	R8/2016	2016-05-04	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala</i>

- 2) Kapital sozial guztia bi bazkide sortzailek, 1. BAZKIDE jaunak eta 2. BAZKIDE jaunak, harpidetu zuten, erdibana eta zati berdinetan.
- 3) Sozietatearen jarduera eraikuntza-materialtako handizkaria da. BFAko zergapekoen zentsuan alta eman zuen 2008ko maiatzaren 15ean.
- 4) Sozietateak ez du langilerik izan eta ez du ibilgeturik.
- 5) Sozietateak bi administratzaile solidario ditu, hain zuzen ere, haren bi bazkide bakarrak, 1. BAZKIDE jauna eta 2. BAZKIDE jauna.
- 6) Erakundearen egoitza soziala 1. AHOLKULARITZA aholkularitzako egoitza da. Erakundeak zerbitzu-prestazioko kontratu bat sinatu zuen harekin, aholkulari fiskaleko eta kontulariko zerbitzuei dagokiena. Dokumentuak berariaz aurreikusten du 1. AHOLKULARITZA aholkularitzaren zerbitzu-prestazioa «egingo dela ahalorderik eta jardueraren erantzule izateagatik dituen eskumenak inola ere bere gain hartu gabe». 1. AHOLKULARITZAK 2008ko urtarrilaren 7an egin zuen zerbitzu-prestazioaren eskaintza, hau da, sozietatea osatu aurretik.
- 7) Erakundeak bankuko kontu bat ireki zuen 1. BANKUko Bilboko sukurtsal batean. Ez da jaso sozietateak beste bankuko konturik duenik.
- 8) Administratzaileetako batek, 2. BAZKIDE jaunak, ez du haren PFEZren aitortpena Bizkaian aurkezten, ez eta lurralde erkidean edo Gipuzkoan ere. Osaera-eskrituran adierazi zuenez, Gipuzkoan du bizilekua. Gizarte Segurantzari agertzen da langile immigranteen osasun-asiatzearen estaldurarako hitzarmen bereziari heldu diola. Beste administratzaileak adierazi duenez, 2. BAZKIDEAK denboraldi luzeak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
97/2011	R8/2016	2016-05-04	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala</i>

ematen ditu Ginean, eta sozietateak salmentak egiten ditu bertan. 1. BAZKIDEAK hori adierazi zion BFAko ikuskatzaileari telefonoz, esan zuenez, Kanarietan omen zegoen eta.

9) Beste administratzaileak, 1. BAZKIDE jaunak, osaera-eskrituran adierazi zuen bizilekua Bilbon duela. Hala ere, 2009. urtera arte (espedientean datu horiek jasota daude bakarrik), PFEZren aitortpena ez zuen Bizkaian aurkezten, Kanarietan baizik. Halaber, Gizarte Segurantzaren fitxategian, Kanarietan herritartuta agertzen zen, zehazki, 1. UDALERRIKO 2. BIZILEKUAN. Alta emanda zegoen langile autonomoen araubidean. Horrez gain, Kanarietan matrikulatutako hamahiru ibilgailuren titular gisa agertzen zen, eta Trafikoko Zuzendaritza Nagusian 3. BIZILEKUA agertzen zen haren bizileku gisa. Ez dago jasota Bizkaian ibilgailurik matrikulatu zuenik. 1. BAZKIDE jauna 1. UDALERRIKO udal-eroldan alta emanda agertzen zen, udalerrri horretako 4. BIZILEKU kalean adierazitako bizilekuarekin. 1. BAZKIDE jauna Interneteko zenbait orrialdetan agertzen da, hiru sozietaterekin, 1. SOZIETATEA, 2. SOZIETATEA eta 3. SOZIETATEA, erlazionatuta. Hirurak daude Kanarietan kokatuta, zehazki, 2. UDALERRIAN. 1. BAZKIDE jaunak ez zuen bere jabegoko higiezinik Bizkaian.

10) 1. ERAKUNDEAK BFAri 2009ko urtarrilaren 26an (zergapekoen zentsuan alta eman eta zortzi hilabete ondoren) egin zion eskaeraz geroztik, BEZ hileroko itzultzeko erregistroan gehitzekoa, BFAk erakundearen egoitza fiskala egiaztatu zuen, eta ondorioztatu zuen ez zegoela Bizkaian, KANARIETAN baizik. 2009ko abenduaren 1ean, BFAk 1. ERAKUNDEAREN egoitza fiskala aldatzeko proposamena igorri zion ZAEARI, Bilbotik KANARIETAKO 1. UDALERRIRA. ZAEAK erantzunik eman ez zuenez, 2011ko maiatzaren 25ean, BFAk berriz egin zion

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
97/2011	R8/2016	2016-05-04	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala</i>

proposamena. Kasu horretan ere ez zuen erantzunik jaso. Horren ondoren, BFAk honako gatazka hori planteatu zuen.

2.- Planteamenduko idazkian, BFAk argudioak azaltzen ditu. Horien arabera, ulertzen du 1. ERAKUNDEAREN egoitza fiskala lurralde erkidean egon dela haren osaeratik. Eta Argudio horietan oinarrituta, BFAREN aburuz, Arbitraje Batzordeak ondorio bera atera behar du.

Haren iritziz, 1. ERAKUNDEAREN egoitza fiskalak ez du bat egiten Bizkaian kokatzen den bere egoitza sozialarekin, honako arrazoi hauek direla eta: a) egoitza fiskala aholkularitza fiskal eta kontularitza-aholkularitzaren egoitzan dago; b) sozietateak ez du jarduerarik egiten Bizkaian; c) sozietateak ez du enplegatutik ez eta lokalik ere Bizkaian eta bi bazkideak Bizkaitik kanpo bizi dira; eta d) sozietateak 3. UDALERRIAN (Asturias) dagoen 4. SOZIETATEARI erosten dizkion produktuak esportatzen ditu, eta ATZERRIAN dagoen enpresa bati, 5. SOZIETATEARI bidaltzen dizkio.

BFAk baieztatzen du erakundearen egoitza fiskala 1. UDALERRIAN dagoela, KANARIETAN, hain zuzen ere, 1. BAZKIDE jaunak, negozioaren kudeaketa eta zuzendaritza efektiboa egiten duen administratzaileak, bere bizilekua duen lekuan.

3.- 2015eko uztailaren 16an egindako bileran, Arbitraje Batzordeak erabaki zuen gatazka hori izapidetzea, eta estatuko administrazioari eta interesdunari jakinaraztea. Jakinarazpen horiek egin zirela jasota dago.

4.- 2015eko urriaren 5eko idatzi baten bidez (sarrera-erregistroa hurrengo egunean izan zuena), ZAEAK alegazioak egin zituen.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
97/2011	R8/2016	2016-05-04	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala</i>

Alegazio horietan esaten du BFAren uziak (1. ERAKUNDEAREN egoitza fiskalak ez du bat egiten haren egoitza sozialarekin) ez dituela egia dela frogatzeko argudiorik, zergapekoaren aitortpenaren egiazkotasun-presuntzioa suntsitzeko, haren egoitza fiskalari dagokionez.

ZEAAREN aburuz, erakundeak egiten duen jarduera ez du langilerik behar, ez eta lokalik ere. Beraz, haren egoitza aholkularitza baten egoitzan egotearen ondorioz, egoitza fiskala xedatzeko administratzaileek enpresaren kudeaketa-eta zuzendaritza-lanak egiten dituzten lekura jo beharko da.

ZEA EK dio erakundearen administratzaile solidarioetako batek Gipuzkoan duela haren egoitza fiskala. Bestearena, berriz, ezin da ezarri, honako arrazoi hauek direla eta: a) BFAK proposatzen duen bizilekua, KANARIETAKO 1. UDALERRIKO 3. BIZILEKUA, 1. BAZKIDEAK saldu zuen 2009ko azaroaren 12an; b) ZEA EKO funtzionarioek KANARIETAKO 1. UDALERRIKO 2. BIZILEKUAN kokatutako bizilekua bisitatu zutenean itxirik aurkitu zuten, "saltzen da" kartel batekin; eta c) udal-eroldan agertzen den bizilekuan, 4. BIZILEKUA, ezin izan zen 1. BAZKIDEA aurkitu.

5.- Espedientea amaitzean, horren berri eman zitzaion ZEA ERI, BFA RI eta erakunde interesdunari. BFA K alegazioak egin zituen 2015eko azaroaren 20ko idatziaren bidez (egun berean sartu zen Arbitraje Batzordean). Haren bitartez, errekurso-idazkian jasotako alegazioak berretsi zituen. ZEA EK eta erakunde interesdunak ez dute alegaziorik egin.

6.- Prozeduraren izapideak egin dira abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak onetsitako Arbitraje Batzordearen Erregelamenduan xedatutakoari jarraikiz.

II.- ZUZENBIDEKO OINARRIAK

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
97/2011	R8/2016	2016-05-04	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala</i>

1.- Gatazka honetan planteatzen den gaiaren xedea da 1. ERAKUNDEAren egoitza fiskala non dagoen xedatzea.

2.- Gai hori ebazteko, Ekonomia Itunaren 43. Lau, b) artikulua aplikatu behar da. Artikulu horrek honakoa xedatzen du:

«Kontzertu Ekonomiko honen ondorioetarako, jarraian aipatuko direnek zerga-egoitza Euskadin dutela uste izango da:

(...)

b) Pertsona juridikoak eta Sozietateen gaineko Zergaren menpean dauden gainerako erakundeak, Euskadin baldin badute sozietate-egoitza eta, beti ere, sozietate-egoitza horretan baldin badute zentralizatuta administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza. Bestela, kudeaketa edo zuzendaritza hori Euskadin egiten denean (...).».

Aginduak azkeneko paragrafo bat gehitzen du, 4. zenbakiko aipatutako b) atalean; haren arabera: «Irizpide horiek erabilia bizilekua non duten jakiterik ez badago, ibilgetuaren baliorik handiena non daukaten hartuko da kontuan».

Kasu honetan, erakundeak ez du ibilgeturik. Ondorioz, aurreikuspen horrek ez luke balioko harengana jo nahi izango balitz.

3.- Arbitraje Batzorde honek behin baino gehiagotan errepikatu du Auzitegi Gorenak baieztatutako doktrina hau: «Pertsona juridikoen egoitza fiskala xedatzeko orduan beren egoitza sozialak ez du garrantzirik. Erabakigarria den

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
97/2011	R8/2016	2016-05-04	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala</i>

irizpidea da beren kudeaketa administratiboa eta negozioen zuzendaritza benetan non dagoen zentralizatua. Gai hori konplexua da; izan ere, zerga ezberdinak aplikatzeko xedez egoitza fiskala xedatzeko aginduzko arauak duten garrantzia ez bezala, Ekonomia Itunean ez da araurik zehazten negozioen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza benetan non dauden zentralizatuta identifikatzeko». Horregatik, «egoitza fiskalaren kokapena (...) frogatzeko, baldintza horiek leku zehatz batean gertatzen direla egiaztatu beharko da». Hori adierazten da, besteak beste, 2009ko martxoaren 6ko R4/2009 Ebazpenean, 5/2008 espedientea –Auzitegi Gorenaren 2010eko otsailaren 8ko Epaiak berretsia, 191/2009 errekurtsio-zenbakia–; 2013ko urtarrilaren 25eko R2/2013 Ebazpenean, 03/2010 espedientea; 2013ko urtarrilaren 25eko R4/2013 Ebazpenean, 04/2010 espedientea; 2013ko otsailaren 22ko R5/2013 Ebazpenean, 05/2010 espedientea; 2013ko otsailaren 22ko R6/2013 Ebazpenean, 06/2010 espedientea; 2015eko ekainaren 19ko R8/2015 Ebazpenean, 33/2014 espedientea; eta 2015eko ekainaren 19ko R12/2015 Ebazpenean, 30/2014 espedientea.

Aurreko ebazpenetan azpimarratu da “negozioen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza” nozioa kontzeptu juridiko zehaztugabea dela, eta hori zehazteko kasuaren baldintza guztiak aintzat hartu behar direla (besteak beste, honako ebazpenak: 2012ko martxoaren 30eko R3/2012, 31/2008 espedientea; 2012ko maiatzaren 11ko R7/2012, 36/2008 espedientea; 2012ko abenduaren 27ko R18/2012, 19/2010 espedientea; 2013ko uztailaren 24ko R14/2013, 31/2010 espedientea –Auzitegi Gorenaren 2015eko ekainaren 18ko Epaiak berretsia, 417/2013 errekurtsio-zenbakia–; 2014ko urriaren 13ko R4/2014, 2/2011 espedientea; 2014ko abenduaren 19ko R7/2014, 32/2010 espedientea; 2015eko ekainaren 19ko R8/2015, 33/2014 espedientea eta 2015eko ekainaren 19ko R12/2015, 30/2014 espedientea). Auzitegi Gorenak honakoa adierazi du: «Negozioen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza zentralizatzea adierazpen konplexua da (...), eta kasuan kasu osatu behar da. Egoera

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
97/2011	R8/2016	2016-05-04	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala</i>

bakoitzeko baldintza objektiboen arabera osatzeaz gain, funtsean kasuan kasuko sozietatearen arabera osatu behar da, bereziki, haren jarduera aintzat hartuta» (2013ko urriaren 17ko Epaia, 538/2012 errekurso-zenbakia, laugarren oinarria; 2014ko otsailaren 21eko Epaia, 505/2012 errekurso-zenbakia, laugarren oinarria; eta 2015eko ekainaren 18ko Epaia, 417/2013 eta 471/2013 errekurso-zenbakiak, bosgarren oinarria).

Bada, BFaren eta ZEAEn arteko desakordio hori, 1. ERAKUNDEAK kudeaketa eta zuzendaritza benetan non egiten duen lekuaren ingurukoa, ebazteko (Ekonomia Ituneko 43.6. artikulua eta EIABEko 3.c) artikulua), espedientean dauden datu eta froga-elementuak aztertu behar dira eta aintzat hartu eta balioztatu behar dira kasuaren baldintza guztiak, kontuan hartuta erakundeak egiten duen jardueraren funtsezko gertakaria.

4.- 1. ERAKUNDEAK egiten duen jarduerari dagokionez (eraikuntza-materialen merkataritza), espedientean dauden fakturen arabera (jarduerako lehen ekitaldikoak), ATZERRIKO bezero bakar bati igortzen zizkioten. Administrazio biak ados daude jarduera horrek ez duela lokalik behar, ezta enplegaturik ere. Beraz, egoitza fiskala administratzaileek kudeaketa- eta zuzendaritza-lanak egiten dituzten lekuan kokatu behar da.

Desadostasunaren ardatza da, ZEAEn aburuz, administratzaileetako baten egoitza fiskala Espainian finkatu ezin izan denez, eta bestearen bizilekua Gipuzkoako helbide batean dagoenez, fakturretan bizileku gisa Bilbo agertzen dela egiaztatuta, erakundeak Bilbon osatu zela fede-emailaren aurrean, bai eta sozietatearen bankuko kontua Bilbon ireki zela. Hortaz, ez dago zalantzarik erakundeak adierazitako egoitza fiskalaren egiazkotasunaren inguruan, Bilbon kokatua.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
97/2011	R8/2016	2016-05-04	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala</i>

BFAk aldiz, erakundearen administratzaile solidarioen inguruan espedientean jasotzen diren dokumentu guztietan, sozietatearen izenean jardun duen bakarra 1. BAZKIDE jauna izan dela ardatz hartuta, bai eta pertsona horrek bere egoitza fiskala Kanarietan duela egiaztatutako zantzuak ere, ulertzen du sozietatea Kanarietan kudeatu eta zuzentzen dela eta hor kokatu behar dela sozietatearen egoitza fiskala.

5.- Espedienteari ekarritako beste froga-elementurik ezean, espedientean egiaztatutako gertakari gisa bakarrik jasotzen dira sozietatea osatzeko eskritura Bilbon egin zela eta herri horretan ireki dela haren titulartasuneko bankuko kontu bakarra, jasota dagoenez.

Baldintza horiek, gai horiez arduratzen den aholkularitza fiskal eta kontularitza-aholkularitza Bilbon egotearekin batera (haren egoitzan finkatu zen egoitza soziala), 1. ERAKUNDEA Bizkaiko lurraldearekin lotzen dute.

Zenbait datuk administratzaile solidarioetako bat, 1. BAZKIDE jauna, Kanariekin lotzen dute. Hain zuzen ere, bazkide hori agertzen da sozietatearen ordezkari gisa zerbitzu fiskalen eta kontularitza-zerbitzuen prestaziorako kontratuan, bai eta zerga-ikuskaritzan agerraldia egiteko eginbideetan ere.

Sozietatearen administratzaile solidarioetako bat Kanarietan kokatzeak, aintzat hartuta administratzaileen eta Bizkaiaren arteko loturarik jasota dagoela, erakundearen zuzendaritza eta kudeaketa Kanarietan egin zitekeela adieraz dezake.

Baina espedientean frogatu denez, zantzu hori ez du sozietatea Kanariekin lotzen duen beste zantzuren batek egiaztatu.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
97/2011	R8/2016	2016-05-04	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen egoitza fiskala

Bestalde, beste administratzailea ezin izan da lurralde erkidean kokatu, eta ATZERRIAN bizi daitekeela jasota dago, hain zuzen ere, salmentak egiten dituen lekuan.

Egoera horren aurrean, BFAk emandako frogaeuskarria ezin da nahikotzat jo, egoitza fiskala Bizkaian duela adierazten duen zerga-betebeharraren aitortpenaren egiazkotasun-presuntzioa indargabetzeko, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 106. artikulua Bizkaiko esparruan sendotua, eta lurralde erkidearen esparruan Zergei buruzko Lege Orokorraren 108. artikulua; ez eta erakundearen zuzendaritza eta kudeaketa Kanarietan egiten dela egiaztatzeko ere.

Beraz, Arbitraje Batzordeak

ADOSTU DU

- 1.- 1. ERAKUNDEAREN (IFZ: -----) egoitza fiskala Bizkaian dagoela adieraztea.
- 2.- Jarduketak amaitutzat jotzea.
- 3.- Akordio hau jakinaraztea Bizkaiko Foru Aldundiari, Zerga Administrazioko Estatuko Agentziari eta 1. ERAKUNDEARI.